Jarraian, Kontratazio-mahaiak Kontratugilearen Profilean eta onartutako lizitatzaileei bidalitako komunikazioan adierazitako leku, egun eta orduan “B” gutun-azala irekiko du jendaurrean eta bertan dauden dokumentuak aztertuko ditu; era berean, egindako guztia agirietan jasota geratuko da.	A continuación, la Mesa de Contratación procederá a la apertura del sobre "B" en acto público, en el lugar, día y hora que la Mesa haya dado a conocer en el Perfil del Contratante y en la comunicación que se curse a las empresas licitadoras admitidas, quedando todo ello recogido en las actas.
B gutun-azalak irekita, horiek balioetsiriko	Una vez abiertos los sobres B, se remitirá a la

dituen teknikariari igorriko zaizkio. Horrek balorazio-txostena, proposamen ekonomikoak jendaurrean ireki aurretik bidali beharko du.	persona técnica encargada de realizar la valoración, que deberá devolver el informe de valoración antes de la apertura pública de la proposición económica.
Azkenean, Kontratazio-mahaiak Kontratugilearen Profilean eta onartutako lizitatzaileei bidalitako komunikazioan adierazitako leku, egun eta orduan "C" gutun-azala irekiko du jendaurrean; hau da, automatikoki baloratu daitezkeen proposamenak inguruko dokumentazioa daukana. Proposamen hauek irakurri ondoren, mahaiak haien puntuazioa egingo du, plegu honetan esleitzeko adierazitako irizpidearen bidez.	Finalmente, la Mesa de Contratación abrirá el sobre "C", es decir, el sobre que contiene la documentación sobre la proposiciónes de valoración automatica, en acto público desarrollado en el lugar, día y hora indicados en el Perfil del Contratante y en la comunicación que se curse a las empresas licitadoras admitidas. La Mesa puntuará las proposiciones de evaluación automatica una vez las haya leído, según los criterios de adjudicación indicados en este pliego.
Proposamenak balioestean, plegu honetako 16. klausulan azaldutako esleipen-irizpideak kontuan hartuko dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. eta 146. artikuluetan xedatutakoaren arabera.	A la hora de valorar las ofertas, se tendrán en cuenta los criterios de adjudicación recogidos en la cláusula 16 de este pliego, según lo dispuesto en los artículos 145 y 146 de la Ley de Contratos del Sector Público.
Txosten teknikoa ikusita, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari esleitzeko proposamena luzatuko dio. Esleitze-irizpideak aurkeztu diren proposamenetan aplikatzearen ondorioz lortutako emaitza, akta, esleipen-proposamenarekin batera eskuratutako dokumentazioa eta bidezkotzat jotako oharpenak helaraziko dizkio Kontratazio-mahaiak Kontratazio-organoari.	Vistos los informes técnicos, la Mesa de Contratación efectuará al órgano de contratación su propuesta de adjudicación. La Mesa de Contratación hará llegar al Órgano de Contratación el resultado de aplicar los criterios de adjudicación a las proposiciones presentadas, el acta, la documentación recabada junto con la propuesta de adjudicación y todas las observaciones que se consideren oportunas.
Proposamen hauek ez dira onartuko:	No se aceptarán las siguientes propuestas:
— Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-hausteak direla-eta Iraurgi Lantzenek eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak.	— Las que contengan contradicciones, omisiones, errores o infracciones que impidan a Iraurgi Lantzen conocer con meridiana claridad aquellos aspectos que considere fundamentales para la consideración de la

— Aztertutako eta onartutako agiriekin loturarik ez dutenak. — Gehieneko lizitazio-prezioa gainditzen dutenak. — Eskaintza ekonomikoan ageriko akatsa dutenak. — Erabakitako eredua funtsean aldatzen dutenak. — BEZ egokia aplikatzen ez duten eskaintzak, beste tasa bat aplikatzen dutenak eta kontratuaren xedea betetzeko zerbitzu guztiak berruan hartzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira. — Datarik ez dutenak, hala nola enpresaren lege-ordezkariaren ahalordea duen pertsonaren sinadurarik ez dutenak, salbu eta, ordezkaria edo pertsona ahalordedun bat duten eskaintzen kasuan, ekitaldia hasi eta berehala sinatzen bada, betiere hori edozein eskaintza ekonomiko irakurri ondoren eginez gero.	oferta. — Las que no sean coherentes con la documentación examinada y aprobada. — Las que superen el precio máximo de licitación. — Las que comporten error manifiesto en la oferta económica. — Las que varíen sustancialmente el modelo establecido. — Las ofertas que no apliquen el IVA correspondiente, las que apliquen otra tasa o las que no integren todas las prestaciones para el objeto del contrato serán automáticamente rechazadas. — Las que no cuenten con fecha y las que no dispongan de la firma de la persona con poder del representante legal de la empresa, salvo, en los casos en que se trate de ofertas con representante o persona con poder, cuando se firme inmediatamente después de la apertura del acto, siempre y cuando esto se realice antes de la lectura de cualquier oferta económica.
Kontratazio-organoak bi erabaki hauetako bat hartzeko ahalmena izango du: kontratua kalitate-prezio onenaren arabera esleitzea, plegu honetako esleipen-irizpideak aplikatuz eta haren balio ekonomikoari ezinbestean kasurik egin behar izan gabe; edo hutsik, esleipenik gabe utz dezake lizitazioa, betiere erabakia esleipenerako irizpide horien arabera arrazoituta.	El Órgano de Contratación podrá decidir entre estas dos opciones: adjudicar el contrato en base a la mejor relación calidad-precio, aplicando los criterios de adjudicación recogidos en este pliego y sin tener que tomar forzosamente en consideración su valor económico; o declarar desierta la licitación, sin adjudicar, justificando siempre su decisión en base a los criterios mencionados.
Esleipenaren kasuan, kontratazio jardunbidea garatu ondoren, kontratuaren esleipena organo eskudunaren ebazpenaren bitartez gauzatuko da.	En el caso de adjudicación, una vez desarrollado el procedimiento de contratación, la adjudicación del contrato será efectuada por medio de una resolución del órgano competente.
Esleipen-proposamenak ez du administrazioarekiko inolako eskubiderik	La propuesta de adjudicación no supondrá ningún derecho del licitador propuesto ante

sortzen proposatutako lizitatzailearen alde. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu esleitzen kontratua egindako proposamenaren arabera, erabakia arrazoitu beharko du.	la Administración. No obstante, si el Órgano de Contratación no adjudicara el contrato en base a la propuesta realizada, deberá justificar su decisión.
15. ANORMALKI BAXUAK DIREN ESKAINTZAK	**15. OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS**
Ez da bidezkoa izango esleipena egitea eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari, baldin eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan jasotakoaren arabera, kontratazio-organoak ondo oinarritutako arrazoiak baditu pentsatzeko proposamena ezingo dela bete, ohiz kanpoko balio baxuak jasotzen dituelako.	No procederá la adjudicación al licitador que realice la mejor oferta si el Órgano de Contratación, basándose en lo dispuesto por el artículo 149 de la Ley de Contratos del Sector Público, tuviera razones fundadas para considerar que la propuesta no se podrá ejecutar por contener valores anormalmente bajas.
Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak anormaltasun presuntzioan egindako eskaintza bat edo batzuk identifikatuko balitu, haiek aurkeztutako lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko dizkie, betiere behar besteko epea emanda, arrazoiez eta xehetasunez justifikatzeko eta banakatzeko prezioen edo kostuen edo beste edozein parametroren maila baxua, oinarri izan direnak eskaintzaren ezohikotasuna definitzerakoan, horretarako beharrezkoak diren informazioa eta agiriak aurkeztearen bidez.	Cuando la mesa de contratación, o en su defecto el órgano de contratación hubiere identificado una o varias ofertas incursas en presunción de anormalidad, deberá requerir al licitador o licitadores que las hubieren presentado dándoles plazo suficiente para que justifiquen y desglosen razonada y detalladamente el bajo nivel de precios, o de costes, o cualquier otro parámetro en base al cual se haya definido la anormalidad de la oferta, mediante la presentación de aquella información y documentos que resulten pertinentes a estos efectos.
Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak lizitatzaileari zuzenduko dion informazio eskaera argi eta garbi adierazi beharko da, lizitatzailea edo lizitatzaileak eskaintzaren bideragarritasuna osoki eta behar bezala justifikatzeko egoeran izan daitezen.	La petición de información que la mesa de contratación o, en su defecto, el órgano de contratación dirija al licitador deberá formularse con claridad de manera que estos estén en condiciones de justificar plena y oportunamente la viabilidad de la oferta.
Zehatz esanda, kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak justifikagarriak eska diezazkieke lizitatzaile horiei eskaintzaren baldintzei buruz, berorren prezio edo kostuen maila baxua zehazteko modukoak badira eta, bereziki, honako balore hauei	Concretamente, la mesa de contratación o en su defecto el órgano de contratación podrá pedir justificación a estos licitadores sobre aquellas condiciones de la oferta que sean susceptibles de determinar el bajo nivel del precio o costes de la misma y, en particular, en

dagokienean: a) Fabrikatzeko prozeduraren, emandako zerbitzuen edo eraikuntzako metodoaren bidez zenbat aurrezten den. b) Zer soluzio tekniko hautatu dituen eta produktuen hornikuntza egiteko, zerbitzuak emateko edo lanak egiteko zein baldintza dituen bereziki aldekoak. c) Zein den produktuen hornikuntza egiteko, zerbitzuak emateko edo lanak egiteko proposatutako irtenbideen berritasuna eta originaltasuna. d) Ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikagarriak diren betebeharrak eta azpikontratazioari dagozkionak errespetatzen direla, ez direlarik justifikagarriak merkatukoak baino prezio baxuagoak edo 201 artikuluak xedatutakoa urratzen dutenak. e) Edo Estatuaren aldetik laguntza jasotzeko aukera izan duen. Nolanahi ere, kontratazio organoek baztertu egingo dituzte eskaintzak, baldin eta frogatzen bada ohikoak baino baxuagoak direla, azpikontratazioari buruzko arauak urratzen dituztelako edo ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikagarriak diren betebeharrak, nazio nahiz nazioarte mailan, indarrean diren sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 201 artikuluan ezarritakoa aplikatzeari buruz. Nolanahi ere, lizitatzaileak proposaturiko prezioen edo kostuen maila baxuaren justifikagarriak ez dituela behar bezala azaltzen ulertuko da, osatu gabea denean edo ikuspegi tekniko, juridiko eta ekonomikotik hipotesietan edo praktika desegokietan oinarritzen direnean. Lizitatzaileak Estatutik laguntza lortu duela eta,	lo que se refiere a los siguientes valores: a) El ahorro que permita el procedimiento de fabricación, los servicios prestados o el método de construcción. b) Las soluciones técnicas adoptadas y las condiciones excepcionalmente favorables de que disponga para suministrar los productos, prestar los servicios o ejecutar las obras. c) La innovación y originalidad de las soluciones propuestas, para suministrar los productos, prestar los servicios o ejecutar las obras. d) El respeto de obligaciones que resulten aplicables en materia medioambiental, social o laboral, y de subcontratación, no siendo justificables precios por debajo de mercado o que incumplan lo establecido en el artículo 201. e) O la posible obtención de una ayuda de Estado. En todo caso, los órganos de contratación rechazarán las ofertas si comprueban que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenio colectivos sectoriales vigentes, en aplicación de lo establecido en el artículo 201 de la LCSP. Se entenderá en todo caso que la justificación no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por el licitador cuando esta sea incompleta o se fundamente en hipótesis o prácticas inadecuadas desde el punto de vista técnico, jurídico o económico.

eskaintza bat ohikoa baino baxuagoa dela frogatzen den kasuetan, proposamena arrazoi bakar honengatik soilik baztertu ahal izango da, baldin eta hark ezin egiazta badezake laguntza publikoen alorrean erkidegoko xedapenak urratu gabe eman dela delako laguntza. Arrazoi horregatik eskaintza bat baztertzen duen kontratazio organoak horren berri eman beharko dio Europar Batzordeari, esleipen prozedura erregulazio harmonizatuko kontratu bati buruzkoa denean.	En los casos en que se compruebe que una oferta es anormalmente baja debido a que el licitador ha obtenido una ayuda de Estado, solo podrá rechazarse la proposición por esta única causa si aquel no puede acreditar que tal ayuda se ha concedido sin contravenir las disposiciones comunitarias en materia de ayudas públicas. El órgano de contratación que rechace una oferta por esta razón deberá informar de ello a la Comisión Europea, cuando el procedimiento de adjudicación se refiera a un contrato sujeto a regulación armonizada.
Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak lizitatzaileak emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du epean, eta kontratazio mahaia den kasuan, kontratazio organoari aurkeztuko dio dagokion onarpen edo baztertze proposamena, behar bezala arrazoituta. Inola ere ez da erabakiko eskaintza baten onarpena kontratazio mahaiaren proposamena zentzu horretan behar bezala arrazoituta ez badago.	La mesa de contratación, o en su defecto, el órgano de contratación evaluará toda la información y documentación proporcionada por el licitador en plazo y, en el caso de que se trate de la mesa de contratación, elevará de forma motivada la correspondiente propuesta de aceptación o rechazo al órgano de contratación. En ningún caso se acordará la aceptación de una oferta sin que la propuesta de la mesa de contratación en este sentido esté debidamente motivada.
Kontratazio organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta laugarren atalean aipatutako txostenak aintzat hartuta, lizitatzaileak proposatutako prezioen eta kostuen maila baxua behar bezala ez duela azaltzen irizten badu eta, ondorioz, ezohiko balioak sartzen direlako eskaintza ezin bada gauzatu, sailkapenetik kanpo utziko du eta eskaintzarik onenaren alde erabakiko du esleipena, SPKLaren 150 artikuluaren 1. atalean adierazitakoaren arabera sailkapen hurrenkera kontuan hartuta. Orokorrean, ustez ezohikotasunezko diren eskaintzak baztertu egingo dira, ikuspegi tekniko, juridiko eta ekonomikotik hipotesietan edo praktika desegokietan oinarrituak badira.	Si el órgano de contratación, considerando la justificación efectuada por el licitador y los informes mencionados en el apartado cuatro, estimase que la información recabada no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por el licitador y que, por lo tanto, la oferta no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales, la excluirá de la clasificación y acordará la adjudicación a favor de la mejor oferta, de acuerdo con el orden en que hayan sido clasificadas conforme a lo señalado en el apartado 1 del artículo 150 de la LCSP. En general se rechazarán las ofertas incursas en presunción de anormalidad si están basadas en hipótesis o prácticas

Ezohikotasun presuntzioan sarturik egondako enpresa bat kontratuaren esleipendun gertatuko balitz, kontratazio organoak baliabide egokiak ezarriko ditu berau gauzatzerakoan jarraipen zehatza egiteko, kontratua zuzen betetzen dela bermatzea xedetzat harturik, zerbitzuen, obren edo horniketen kalitatean murrizketarik gertatu gabe.	inadecuadas desde una perspectiva técnica, económica o jurídica. Cuando una empresa que hubiese estado incursa en presunción de anormalidad hubiera resultado adjudicataria del contrato, el órgano de contratación establecerá mecanismos adecuados para realizar un seguimiento pormenorizado de la ejecución del mismo, con el objetivo de garantizar la correcta ejecución del contrato sin que se produzca una merma en la calidad de los servicios, las obras o los suministros contratados.
16. ESLEITZE-IRIZPIDEAK Hona hemen kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren proposamenak balioesteko irizpideak, garrantzia handiena duenetik txikiena duenera zerrendatuta, eta esleitzen zaien haztapenaren arabera: **1.- ERA AUTOMATIKOAN BALIOESTEKO IRIZPIDEAK (C gutun-azalean sartu beharrekoak)** **(70 puntu arte)** **1) Berdinketaren prezioa: 60 puntu arte** Puntuaziorik altuena emango zaio preziorik merkeenari eta formula honetatik ateratzen da gainontzeko proposamenen puntuazioa: preziorik baxueneko eskaintza zatitu baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaz eta emaitza hori biderkatuz irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru. Hau da,	**16. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN** Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del contrato relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes: **1.- CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA (a incluir en el sobre C)** **(hasta 70 puntos)** **1) Precio de iguala: Hasta 60 puntos** Se otorgará la máxima puntuación al precio más económico y la puntuación del resto de las ofertas se desprende de la fórmula de multiplicar el resultado del cociente entre el precio más bajo y la oferta del licitador que se valora por el número total de puntos aplicables al criterio. Esto es,
Lp=Et/Lex60	Pl=Ob/Olx60
Non-eta:	Donde: Pl: Puntuación licitador Ob: Oferta más baja

Lp: Lizitatzailearen puntuazioa Et: eskaintzarik txikiena Le: Lizitatzailearen eskaintza Berdinketaren urteko gehienezko zenbateko 4.200 € gehi BEZa izango dira. **2) Lantaldearen eskarmentua: 10 puntu arte.** **2.1. Kontu ikuskaritzaren kide arduraduna: 7 puntu arte**. Puntu bana esleituko da Kontu Ikuskarien Erregistroan inskribatuta daraman urte bakoitzeko, kaudimen teknikoa egiaztatzen duten 3 urteak aintzat hartu gabe (2018 eta aurrekoak). **2.2 Ikuskaritza taldearen burua: 3 puntu arte.** Puntu bana esleituko da Kontu Ikuskarien Erregistroan inskribatuta daraman urte bakoitzeko, kaudimen teknikoa egiaztatzen duten 3 urteak aintzat hartu gabe (2018 eta aurrekoak). **2.- BALIO JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK** **Lan-planari buruzko memoria eta Organigrama eta lantaldeko kideak:** **gehienez 30 puntu** Baliozko iritziaren bitartez kuantifikagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioan lizitatzaileak Lan-Planari buruzko memoria eta Organigrama eta auditoretza lana egin behar duen lantaldeko kideak, aurkeztu beharko ditu eta honakoak baloratuko dira: • Lan Planari buruzko memoria; pleguetan jasotako faseak, denbora-banaketa eta	Ol: Oferta licitador El importe de la iguala se establece en un máximo de 4.200 € más IVA por año. **2) Experiencia del equipo de trabajo: Hasta 10 puntos** **2.1. Socio/a responsable de la auditoría: Hasta 7 puntos**. Se asignará 1 punto por cada año inscrito/a en el Registro de Auditores de Cuentas, sin tener en cuenta los 3 años acreditativos de la solvencia técnica (año 2018 y anteriores). **2.2 Jefe/a de equipo de la auditoría: Hasta 3 puntos**. Se asignará 1 punto por cada año inscrito/a en el Registro de Auditores de Cuentas, sin tener en cuenta los 3 años acreditativos de la solvencia técnica (año 2018 y anteriores). **2.- CRITERIOS QUE DEPENDEN DE JUICIOS DE VALOR** **Memoria Plan de trabajo y Organigrama y descripción del equipo de trabajo:** **(hasta 30 puntos)** En relación con los criterios a valorar mediante juicio de valor, el licitador presentará una memoria sobre el Plan de Trabajo y Organigrama y descripción del equipo a realizar el trabajo de auditoría, en el que se valorará: • Memoria sobre el Plan de Trabajo, según las fases indicadas en los Pliegos, distribución de tiempos y

zereginak kontuan hartuz (15 puntu arte). Atal honen barruan baloratuko da zer planteamendu eskaintzen duen eman beharreko aholkularitzari buruz, ekitaldian zalantzak erabakitze aldera. • Organigrama eta Auditoriako lantaldeko kideak: (15 puntu arte). Balioetsi egingo da proposatutako lantaldearen organigrama kontratuaren xederako egokia eta aproposa izatea; taldeko kide bakoitzak bere gain hartuko dituen zereginak zehaztu behar dira, bai eta kontu ikuskaritza lanak egiteko eskainiko dituen ordu kopuruaren aurreikuspena ere. - Lagun-kopurua eta bakoitzaren ordu-inbertsioa. (5 puntu arte) - Kide bakoitzaren curriculum vitae. (5 puntu arte) - Taldearen organigrama.(5 puntu arte) Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio bera badute, kontratuaren xedeari loturiko irizpideak aplikatuko dira, 2017ko SPKLko 147. artikuluari jarraikiz. Horrelako irizpiderik ez badago, berdinketa irizpide sozial hauek aplikatuz hautsiko da (irizpideak eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren bete behar dituzte enpresek): - Enpresen langile-taldean desgaitasunak dituzten edo gizarteak baztertuta dauden langileen portzentajea handiagoa izatea. Enpresek portzentaje bera badute, desgaitasuna duten langile finko gehien edo gizarteratzeko	tareas. (hasta 15 puntos). Dentro del presente apartado se valorará el planteamiento ofertado respecto del asesoramiento a prestar cara a la resolución de dudas a lo largo del ejercicio. • Organigrama y descripción del equipo de trabajo (hasta 15 puntos): Se valorará la adecuación e idoneidad con el objeto del contrato del organigrama del equipo de trabajo propuesto especificando las tareas que asumirá cada miembro del equipo, así como la dedicación prevista en horas en el desarrollo del trabajo de auditoría. - Número de personas e inversión horaria de cada uno. (Hasta 5 puntos) - Curriculum vitae de cada uno de los componentes. (Hasta 5 puntos) - Organigrama del equipo. (Hasta 5 puntos) Cuando tras la aplicación de los criterios de adjudicación, se produzca un empate entre dos o más ofertas se aplicarán los criterios vinculados al objeto del contrato, que se señalen, en su caso, conforme al artículo 147 de la LCSP 2017, y en su defecto, el empate se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas: - Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la

hartutako langile gehien dituena gailenduko da.	plantilla.
- Enpresen langile-taldean aldi baterako kontratuen portzentajea txikiagoa izatea.	- Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.
- Enpresen langile-taldean emakume-portzentajea handiagoa izatea.	- Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.
- Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketa ez bada hausten, zozketa egingo da.	- El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.
Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen denean aurkeztu behar dituzte lizitatzaileek, ez lehenago.	La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.
17. DOKUMENTAZIOA ERREKERITZEA	**17. REQUERIMIENTO DE LA DOCUMENTACIÓN**
Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo dio aginduzko honako agiri hauek aurkezteko gehienez ere 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz:	El licitador que haya presentado la mejor oferta será requerido por el Órgano de Contratación para que, en plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la siguiente documentación justificativa, de conformidad con lo establecido en el artículo 150.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público:
1.- Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten dokumentuak. Nortasuna honela egiaztatuko da:	**1.- Documentos acreditativos de la personalidad jurídica del empresario.** Para acreditar la personalidad deberán cumplirse los siguientes requisitos:
a.1. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eratze-eta, hala egokituz gero, aldatze-eskrituraren bidez, Merkataritza Erregistroan izena behar bezala emanda, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez, aplika dakiokeen	a.1. Si el licitador fuera persona jurídica, la acreditación se hará mediante presentación de la escritura de constitución o, en su caso, de modificación, inscrita en el Registro Mercantil, y mediante el número de

merkataritza-legediaren arabera izen-ematea galdagarria bada. Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasuna eraketa-eskrituraren, estatutuen edo sorrera-aktaren bidez bermatuko da. Agiri horretan jasota egongo dira haren jarduera arautzen duten arauak, behar balitz, dagokion erregistro ofizialean erregistratuak.	identificación fiscal, cuando este requisito fuere exigible conforme a legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional. En dicho documento deberán constar, si así se requiriese, las normas por las que se regula su actividad, inscritas en el registro oficial correspondiente.
Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu espainiarrak ez badira, lanbide erregistroren batean erregistratuta daudela egiaztatu beharko dute, estatu horretako legediak baldintza hori eskatzen badu.	La capacidad de obrar de los empresarios no españoles de Estados miembros de la Unión Europea se acreditará mediante comprobante de su inscripción en algún registro profesional, si así lo exige la legislación de dicho estado miembro.
Atzerriko gainerako enpresariek enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo kontsuletxeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.	De los demás empresarios extranjeros, con informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa.
a.2. Lizitatzaileak bere izenean badihardu, nortasun-agiri nazionala edo dagokion estatuko baliokidea aurkeztu beharko du.	a.2. El licitador que actúe en su propio nombre deberá presentar su documento nacional de identidad o el documento equivalente del estado correspondiente.
2.- Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak: proposamenak ez badu lizitatzaileen izenperik, eskaintza izenpetu duenaren edo izenpetzen dutenen alde luzatutako ahalordea sartu behar da, ahaldunen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eskuetsiarekin batera.	**2.- Documentos acreditativos de la representación**: cuando la proposición no aparezca firmada por los licitadores deberá incluirse el poder otorgado a favor de quien o quienes suscriban la proposición junto con una copia auténtica del Documento Nacional de Identidad del o los aporderados.
3.- Lizitatzailearen **kaudimen ekonomikoa** egiaztatzen dutenak, **era hauetako gutxienez bide baten bitartez** egiazta daiteke:	**3.-** Documentos acreditativos de la **solvencia económica** del licitador, se **acreditará al menos por uno** de los medios siguientes:

a) Urteko negozio bolumena, edota negozioen urteko bolumena, kontratuak hartzen duen eremuan, erabilgarri dauden azken hiru urteetako ekitaldi onenari dagokionean. Urteko gutxieneko bolumena 27.600€ koa da.	a) Volumen anual de negocios, o bien volumen anual de negocios en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles. El volumen mínimo anual es de 27.600€.
b) Ondare garbia, edota aktiboen eta pasiboen arteko ratioa, urteko kontuak onartzeko obligazioa betez azken ekitaldi ekonomikoa ixtean, agiri honetan eskatzen duten zenbatekoaren berdina edo handiagoa.	b) Patrimonio neto, o bien ratio entre activos y pasivos, al cierre del último ejercicio económico para el que esté vencida la obligación de aprobación de cuentas anuales por importe igual o superior al exigido en el presente pliego.
4.- Kaudimen teknikoaren edo profesionala egiaztatzen dituzten agiriak, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko direlarik:	**4.-** Documentos acreditativos de la **solvencia técnica o profesional,** con la presentación de la siguiente documentación:
a) Kontratutako lantalde parte-hartzailea zehaztea: auditoriaren lanak egitearen talde arduradunak, gutxienez, edukiko ditu kontratuaren auditore arduradun bat, taldeburu bat eta laguntzaile bat.	a) Indicación del equipo técnico participante en el contrato: el equipo responsable de los trabajos de auditoría constará al menos de un socio/a responsable de la auditoría, un/a auditor/a jefe/a de equipo y un ayudante.
b) Egindako zerbitzuak: Kontu auditorien zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, gerenteak eta taldeburuak egindakoak, azken hiru urteotan, eta adieraziko dira noiz auditatu diren enpresak eta haien izenak, eta zerrendari gehituko zaizkio horien ziurtagiriak edo kreditagiriak.	b) Servicios prestados: Relación de los principales servicios o trabajos de auditorías de cuentas realizados por el/la gerente y el/la jefe/a de equipo, durante los tres últimos años, indicándose las fechas y nombre de las empresas auditadas, a la que que se incorporarán los correspondientes certificados o documentos acreditativos de los mismos.
Ez dira onartuko lizitatzaileen proposamenik, baldin eta ez badute kreditatzen gerenteak eta taldeburuak azken 5 urteotan gutxienez 3 kontu eta finantza auditoria egin dutela, urteko izaerakoak, tokiko zerbitzu publiko batean (udalak, mankomunitateak, tokiko erakunde autonomoak, menpeko merkataritza	**No serán admitidas las propuestas de los licitadores que no acrediten que el/la gerente y el/la jefe/a del equipo hayan realizado en los últimos 5 años, al menos 3 auditorías contables y financieras de carácter anual, en el sector público local (Ayuntamiento, Mancomunidades,**

sozietateak, fundazioak, kontsortzioak eta abar) Euskadiko Autonomia Erkidegoan.	**Organismos autónomos locales, sociedades mercantiles dependientes, fundaciones, consorcios, etc.) de la Comunidad Autónoma del País Vasco**.
c) Kontratatzeko habilitazio espezifikoa: Enpresaren ziurtagiria, kreditatzen duena inskribaturik dagoela Kontabilitate eta Kontu ikuskaritza Institutuko Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC).	c) Habilitación específica para contratar: Certificado de empresa de hallarse inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas (ROAC).
d) ROACen agiria, elkargoko kide egitearen data eta lantaldearen kide arduraduna "jardunekoa" dela egiaztatzen dituena.	d) Certificado emitido por el ROAC, acreditativo de la fecha de colegiación y la condición de "ejerciente" del socio/a responsable del equipo de trabajo.
e) ROACen agiria, elkargoko kide egitearen data eta lantaldearen burua "jardunekoa" dela egiaztatzen dituena	e) Certificado emitido por el ROAC, acreditativo de la fecha de colegiación y la condición de "ejerciente" del jefe/a del equipo de trabajo.
Baldintza hauek kontratuzko betebeharren izaera edukiko dute, horregatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 76.2 artikuluak xedaturikoari jarraiki, baldintza hori ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoitzat hartu ahal izango da, 211 artikuluan ezarritako eraginetarako.	**Estas condiciones tienen el carácter de obligación contractual, por lo que, al amparo de lo previsto en el artículo 76.2 de la Ley de Contratos del Sector Público, su incumplimiento podrá ser considerado causa de resolución del contrato a los efectos señalados en el artículo 211.**
5.- Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.	**5.- Documentación acreditativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.**
6.- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzea, alta aurkeztuz, indarrean den ekitaldiari badagokio, edota Jardueren gaineko Zergaren azken ordainagiria, gainerakoetan; eta bi egoeratako edozeinetan, aipatutako zergaren matrikulan baja eskatu ez izanaren erantzukizunpeko aitorpena.	**6.- Acreditación de estar dado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas**, en el epígrafe correspondiente al objeto del contrato, presentando el documento de alta correspondiente al ejercicio en vigor, o el último recibo del Impuesto sobre Actividades en los demás casos, y, en cualquier caso, declaración responsable de no haberse dado

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda duten lizitatzaileek erregistroaren ardura duen letratuak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, indarrean dagoelako adierazpenarekin batera, 1.-, 2.-, 5.- eta 6.- ataletan eskatutako dokumentazioaren ordez, eta bere kasuan, sailkapenarena, betiere dokumentazioan inolako aldaketarik ez bada eman, eta hori eman bada, zirkunstantzia hori jasota utzi beharko da ardurapeko aitorpen baten bidez.	de baja en la matrícula del citado impuesto. **Aquellos licitadores que se encuentren inscritos en el Registro Oficial de Empresas Clasificadas, regulado por el Decreto 12/1998, de 3 de febrero, sobre Registro Oficial de Contratistas e implantación de la Clasificación de la Comunidad Autónoma de Euskadi, podrán presentar copia compulsada del certificado expedido por el letrado responsable del registro, en sustitución de la documentación requerida en los apartados 1.-, 2.-, 5.- ,y 6.-, y en su caso, de la clasificación, siempre que no hubiera habido modificaciones en la misma, haciendo constar esa circunstancia mediente declaración responsable.**
Jatorrizko dokumentuak aurkeztu ahal izango dira, edo haien kopiak, benetakoak badira indarreko legediaren arabera.	Se podrán presentar documentos originales, o bien copias de los mismos debidamente autentificados según la legislación en vigor.
b) Plegu honetako 8. baldintzan adierazitako behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria.	b) Documento acreditativo de haber constituido la garantía definitiva que se recoge en la cláusula 8 de este pliego.
c) Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza harpidetuta daukala egiaztatzen duen dokumentazioa, kontratuaren xede den jarduerarako beharrezkoa den estaldura ekonomikoarekin eta poliza hori ordainduta izatearen ziurtagiriarekin.	c) Documentación acreditativa de la suscripción de la póliza de Seguro de Responsabilidad Civil con cobertura económica suficiente para la actuación objeto del contrato y justificante de estar al corriente en el pago del mismo.
Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren %3ari dagokion zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio zehapen modura. Kasu horretan	De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad. En ese supuesto se procederá a

dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.	recabar la misma documentación al licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.
18.KONTRATUAREN ESLEIPENA	**18.ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO**
Kontratazio-organoak, dagozkion txosten teknikoak aztertu ondoren, proposamenak irekitzen diren hurrengo egunetik zenbatzen hasita – lehenengo irekieratik -, gehienez ere bi (2) hilabeteko epean, kontratuaren esleipena egingo du. Esleipena epe horretan egin ezean, enpresariak eskubidea du bere proposamena erretiratzeko eta jarritako bermea itzul dakion.	El órgano de contratación adjudicará el contrato en el plazo máximo de dos (2) meses a contar desde el día siguiente al de apertura de proposiciones – desde el primer acto de apertura -. De no dictarse la adjudicación en dicho plazo el empresario tiene derecho a retirar su proposición y a que se le devuelva la garantía depositada.
Esleipenaren erabaki arrazoitua, kontratazio-organoak emango du, bost (5) laneguneko epean, dokumentazioa jasotzen denetik. Gainera erabaki hori lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta kontratugilearen profilean (www.iraurgiberritzen.eus) argitaratuko da hamabost (15) eguneko epean. Lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokionez, SPKL-ren 151 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.	La adjudicación se acordará por el órgano de contratación en resolución motivada, en el plazo de cinco (5) días hábiles, desde la recepción de la documentación, debiendo notificarse a los licitadores y publicarse en el perfil de contratante (www.iraurgiberritzen.eus) en el plazo de quince (15) días, siendo de aplicación lo previsto en el artículo 151 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público en cuanto a la información que debe facilitarse a aquéllos.
Aurkeztutako proposamenak, onartuak nahiz ireki gabe baztertuak edo ireki ondoren atzera botatakoak, espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu eta errekurtsoak jartzeko epea errekurtsorik jarri gabe amaitzen denean, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesatuen eskura geratuko da.	Las proposiciones presentadas, tanto las declaradas admitidas como las rechazadas sin abrir o las desestimadas una vez abiertas, serán archivadas en su expediente. Adjudicado el contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, la documentación que acompaña a las proposiciones quedará a disposición de los interesados.
19.KONTRATUA FORMALIZATZEA	**19. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua dokumentu administratiboan	El contrato deberá formalizarse en

formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali ondorengo hamabost egun baliodun baino lehenago ez. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara jotzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.	documento administrativo, no antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores. Dicho documento constituye título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.
Formalizatu ondoren osatzen da kontratua.	El contrato se perfecciona con su formalización.
Zerbitzuak Aldi Baterako Enpresen Elkarte bati esleitzen baldin bazaio, horrek eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan, kontratua gauzatzeko emandako epean, eta Elkarte horri izendatutako IFZ emanez.	En el caso de que el servicio fuera adjudicado a una Unión Temporal de Empresarios deberán éstas acreditar la constitución de la misma, en escritura pública, dentro del plazo otorgado para la formalización del contrato y NIF asignado a la Unión.
Kontratuaren formalizazioa, Iraurgi Lantzeneko kontratugilearen profilean (www.iraurgiberritzen.eus) argitaratuko da, behin kontratua perfekzionatzen den egunetik gehienez hamabost eguneko epean.	La formalización del contrato será publicada en el perfil de contratante de Iraurgi Lantzen, S.A. (www.iraurgiberritzen.eus) en un plazo no superior a quince días tras el perfeccionamiento del contrato.
III. KONTRATUA GAUZATZEA	**III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
20. KONTRATUA GAUZATZEA	**20. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da, SPKLko 197. artikuluaren arabera.	El contrato se ejecutará a riesgo y ventura del contratista, según el artículo 197 del LCSP.
Kontratua bere baldintzetan eta administrazio-baldintzen nahiz baldintza teknikoen pleguetan adierazitakoa kontuan hartuta gauzatuko da, bai eta kontratazio-organoak kontratistari haien interpretaziorako zuzenean edo kontratuaren arduradunaren bitartez emandako azalpenak kontuan hartuta ere.	El contrato se ejecutará teniendo en cuenta lo estipulado en las condiciones y cláusulas administrativas y prescripciones técnicas, así como según las directrices marcadas directamente por el órgano de contratación al contratista o por medio del responsable del contrato.

Kontratistari edo haren mende dauden pertsonei egotzi dakizkien egintzengatik edo omisioengatik, arriskuan jartzen denean kontratua ondo bidean joatea, Iraurgi Lantzenek exijitu ahalko du beharrezko neurriak hartzera, kontratua betetzean ordena ona lortu edo berraztertzeko.	Cuando por actos u omisiones imputables al contratista a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, Iraurgi Lantzen podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.
Administrazio Kontseilua izango da lana ondo egiten dela zaintzea, zuzentzea, egiaztatzea eta koordinatzea. Horretarako, erakunde horrek kontratuaren arduraduna hautatuko du langileen artean.	El Consejo de Administración se encargará de velar por que el trabajo se realice adecuadamente, así como de su dirección, verificación y coordinación. Para ello, dicha institución elegirá a una persona encargada del contrato entre el personal.
21. KONTRATUA BURUTZEKO BALDINTZA BEREZIAK	**21. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
1. Kontratua betetzeko baldintza bereziak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunarenean:	**1. Condiciones especiales de ejecución en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo:**
Enpresa kontratugileak bete egin behar ditu indarrean dauden legezko, araudizko eta hitzarmenezko xedapen guztiak, betiere, lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak badira. Kontratuaren iraunaldi osoan, adjudikatzaileak egunean eduki behar ditu bere langileekiko soldata obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak.	La empresa contratista deberá cumplir todas las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, Seguridad Social, y seguridad y salud en el trabajo. En especial, el adjudicatario del contrato, durante todo el período de su vigencia, deberá encontrarse al corriente en las obligaciones salariales con sus trabajadores y con la Seguridad Social.
Hauek izango dira ez-betetze arinak:	**Serán incumplimientos leves:**
a) Langileari idatziz ez jakinaraztea kontratuaren funtsezko osagaiak eta lan-prestazioa betetzeko baldintza nagusiak, dagokion araudiak ezarritako moduan eta epeetan.	a) No informar por escrito al trabajador o trabajadora sobre los elementos esenciales del contrato y las principales condiciones de ejecución de la prestación laboral, en los términos y plazos establecidos en la normativa correspondiente.
b) Lan-istripuen eta deklaratutako laneko	b) No dar cuenta, en tiempo y forma, a la

gaixotasunen berri ez ematea lan agintaritza eskudunari garaiz eta dagokion moduan, istripu edo gaixotasun horiek arintzat jotzen direnean.	autoridad laboral competente de los accidentes de trabajo ocurridos y las enfermedades profesionales declaradas cuando tengan la calificación de leves.
c) Aldi baterako ezintasunen bajaren, baja berrespenaren edo altaren agiri medikuen kopiak ez bidaltzea dagokion entitateari.	c) No remitir a la entidad correspondiente las copias de los partes médicos de baja, confirmación de la baja o alta de incapacidad temporal facilitadas por las personas trabajadoras.
d) Betebehar formal soilei edo dokumentalei eragiten dizkieten gainerako ez-betetzeak.	d) Cualesquiera otros incumplimientos que afecten a obligaciones meramente formales o documentales.
Ez-betetze larriak:	**Serán incumplimientos graves:**
a) Lan-kontratua idatziz ez formalizatzea, betekizun hori legez bete beharrekoa denean edo langileak eskatu duenean.	a) No formalizar por escrito el contrato de trabajo cuando este requisito sea exigible o cuando lo haya solicitado el o la trabajadora.
b) Kontratu-motei, iraunaldi zehatzeko kontratuei eta aldi baterako kontratuei buruzko araudia urratzea, kontratu-mota ezberdinak lege-iruzurrez erabilita.	b) Incumplir la normativa sobre modalidades contractuales, contratos de duración determinada y temporales, mediante su utilización en fraude de ley.
c) Lanaldi, gaueko lan, aparteko ordu, ordu osagarri, atsedenaldi, opor eta baimenei buruzko arauak eta legezko nahiz hitzartutako mugak ez betetzea.	c) Incumplir las normas y los límites legales o pactados en materia de jornada, trabajo nocturno, horas extraordinarias, horas complementarias, descansos, vacaciones, permisos.
d) Enpresak bere kasa ezarritako funtsezko lan-baldintzak aldatzea, legez ezarritako prozeduretara jotzeke.	d) Modificar las condiciones sustanciales de trabajo impuestas unilateralmente por la empresa, sin acudir a los procedimientos legamente establecidos.
e) Legez edo hitzarmen kolektiboz ezarritako lan baldintzak baino txarragoak ezartzea, eta era berean, langileen Estatutuaren 4. artikuluak langileei aitortzen dizkien eskubideen kontrako ekintzak nahiz ez-egiteak burutzea, oso larritzat	e) Establecer condiciones de trabajo inferiores a las establecidas legalmente o por convenio colectivo, así como los actos u omisiones que fueren contrarios a los derechos de las y los trabajadores

ez badira sailkatzen.	reconocidos en el artículo 4 de la Ley del Estatuto de los trabajadores, salvo que proceda su calificación como muy grave.
f) Laneko segurtasun eta osasun-plana ez egitea lan arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako edukiarekin eta irismenarekin.	f) Incumplir la obligación de elaborar el plan de seguridad y salud en el trabajo con el alcance y contenido establecidos en la normativa de prevención de riesgos laborales.
g) Laneko segurtasun eta osasun-planaren jarraipena egiteko betebeharra ez betetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako irismenarekin eta edukiarekin.	g) Incumplir la obligación de realizar el seguimiento del plan de seguridad y salud en el trabajo, con el alcance y contenido establecidos en la normativa de prevención de riesgos laborales.
h) Indarrean dagoen araudiaren araberako azterketa medikuak eta langileen osasun egoera aztertzeko aldizkako zainketa probak ez egitea, edo haien emaitzen berri dagokien langileei ez ematea.	h) No realizar los reconocimientos médicos y pruebas de vigilancia periódica del estado de salud de las y los trabajadores que procedan conforme a la normativa en vigor, o no comunicar su resultado a las y los trabajadores afectados.
i) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, ez-betetzea oso larritzat jotzendenean izan ezik.	i) Adscribir trabajadores o trabajadoras a puestos de trabajo cuyas condiciones fuesen incompatibles con sus características personales conocidas, salvo cuando se considere incumplimiento muy grave.
j) Lan istripuen eta deklaratutako lanbide gaixotasunen berri garaiz eta forma egokian ez ematea lan-agintaritzari, indarrean dauden xedapenen arabera, istripu edo gaixotasun horiek larri, oso larri edo hilgarri kalifikazioa dutenean, edo ikerketarik ez burutzea langileen osasunari kaltea eragin zaionean edo prebentzio-neurriak nahikoak ez direla susmatzeko zantzuak daudenean.	j) No dar cuenta en tiempo y forma a la autoridad laboral, conforme a las disposiciones vigentes, de los accidentes de trabajo ocurridos y de las enfermedades profesionales declaradas cuando tengan la calificación de graves, muy graves o mortales, o no llevar a cabo una investigación en caso de producirse daños a la salud de las y los trabajadores o de tener indicios de que las medidas preventivas son insuficientes.
k) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia	k) Incumplir la normativa de prevención de

ez betetzea, ez-betetzea arintzat edo oso larritzat jo denean izanik ezik.	riesgos laborales, salvo que la misma tenga la consideración de leve o muy grave.
l) Lantokiaren edo langunearen garbitasun eza, ohikoa denean edo langileen osotasun fisikorako eta osasunerako arriskua dakarrenean.	l) La falta de limpieza del centro o lugar de trabajo, cuando sea habitual o cuando de ello se deriven riesgos para la integridad física y salud del personal.
m) Langile berrien hasierako afiliazioa edo alta ez eskatzea, edo epez kanpo eskatzea, ikuskapen-jarduera baten ondorioz. Ondorio horietarako, kasu horretan dagoen langile bakoitzeko ezbetetze bat eman dela ulertuko da.	m) No solicitar la afiliación inicial o el alta de las y los trabajadores que ingresen a su servicio, o solicitar la misma, como consecuencia de actuación inspectora, fuera del plazo establecido. A estos efectos se considerará un incumplimiento por cada trabajador o trabajadora afectada.
